



AMAIA ZENTROA  
Benito Perez galdos z/g  
01002 GASTEIZ  
araba@bertsozale.com  
945010505



Maiatza euritan igaro  
Giro ona dago, klaro:  
Bertso-jasari aurre egiteko  
Euritakorik ez dago

ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEAREN

# Berripapera

## Eskolartekoan, ederra giroa!

ABE transmisioa



**Ekainaren 1ean izan zen Arabako eskolarteko bertso festa Legutión, txikietatik hasi eta handietara, bat-batean zein sortetan denek izan zuten parte hartzeko, elkar pixka bat gehiago ezagutzeko eta ikasturtean zehar ikasitakoa erakusteko aukera.**

Goizean goizetik Legutioko kultur etxean ekin zioten lanari. Bat-batean eta bertso sorta kolektiboak kantatuz aritu ziren Gasteiz, Mendiialdea, Lautada eta Aramaioko 30 haur. Bertso-eskolatik oholntza gainera saltoa ez da makala baina urduritasuna alde batera utzi eta gozatu eta gozarazteko gai izan ziren Arabako bertso-eskola guztietatik etorritako 80 haur, gazte eta gurasoen aurrean. Nabarmenezkoak izan ziren, hasi berriak izan arren, zenbaitetan asmatu ez arren, erakutsi zuten freskura eta ausardia. Hamaiketako batekin amaitu zuten goizeko txanda bertaratutako guztiek. Haurrek irribarrea ahoan, talde bakoitza kurtsu amaierako merendola egiteko beharrezkoak diren gauza guztiak biltzen zituen saski dotore batekin joan zen etxera. Legutión kantatu ostean Euskal Herriko txapelketan parte hartzeko gogoia adierazi duten haurrek taldea osatuko dute datorren asteotan. Astelehenetan 18:00etan Gasteizko Amaia zentroan bilduko dira, elkarrenganako konfiantza sakondu eta Orioko finaleko festa egunean egin beharrezkoak egoki prestatzeko.

Eguerdian gazteen txanda izan zen, Murgia, Izarra, Legutio, Aramaio, Agurain, Zaldondo, Aiaraldeko bertso-eskoletatik hurbildutako 40 gaztek bertso poteoa egin zuten herriko kale eta tabernetan, elkarri ziria sartuz, elkarrekin barre eginenez, umore onarekin egin zioten aurre eguraldi kaxkarrari. 14:00etan herriko frontoian bazkari herrikoia zuten zain, eta ez zuten asko iraun ixilik eta geldik. Postrea amaitzerako zorrotatik ateratako trikitixa, pandero eta gitarrek, bazkalosteko dantza-plaza eta kantuei bidea zabaldu, eta giro horretan elkarrekin heldu zen gazte talde oparoa kultur etxera. 16:30etan gaztez bete zen aretoa, eta ikusleek berehala egin zuten bat egun osoan zehar kalea eta giroa animatzen aritutako bertso-eskoletako partaideen berotasunarekin.

Arratsaldeko saioa Murgia, Izarra eta Legutioko bertso-eskoletako bertso sorta umoretsu eta dotoreek zabaldu zuten, giroa hasieratik pil-pilean jarriz. (segi...)



# Eskolarteko kronika (jarraipena)

ABE transmisioa



Jarraian, Gasteiz, Zaldondo eta Aramaioko kanporaketetan sailkatutako 6 gaztek Eskolarteko txapelketako finalari egin behar izan zioten aurre. Oholtza gainean izan ziren Maddalen Arrausi eta Iñaki Tena gasteiztarrak, Xabin Aranburu eta Peru Abarrategi aramaioarrak, Egoitz Iradier zaldondoarra eta Jon Unai Aspe Aguraindarra. Bakoitzak bereetik ahal zuten onena eman ondoren, guztiek izan zuten aipamen berezi bat umorez betetako sari banaketan. Iñaki VIñaspre eta Ander Solozabalek opari xelebrez betetako poltsa zabaldu eta errimatutako esaldi bakoitzeko entzuleen barre algarak piztu zituzten.


Iñaki Tena gasteiztarrak bigarren postua lortu zuen eta Peru Abarrategi Aramaioarrak aldiz txapela. Horrekin batera Euskal Herriko eskolarteko txapelketarako txartela ere eskuratu zuten.

Legutioko festa eguna BERTSO TABERNeKin dantza, kantu eta saltoka amaitu zuten gazteek. Amaiera bikaina

eman zioten eguraldi txarra alde batera uztea lortu zuen egun politari.

## Arabako bertso eskolek 11 opari

ABE sustapena



Ze potentzia Arabako bertso-eskolena! Hamaika saio antolatzen dituzte urtean zehar, eta maiatza eta ekaina bitarte beste 11 antolatu dituzte. Tira, zehatzago esanda, 10+1!!

Bertso-eskolak ez dira opari bat, zirikatzaile hutsak dira, bazterrak nahasten dituzte eta saltseroak dira. Hori da herrian edo eskualdean eta Araban behar duguna, MARTXA-MARTXA!

Gainera, herriko jaietan zerbait antolatu nahi dutenean nori esaten diote? Eta aldarrikapen egunean ekitaldi bat antolatu nahi bada? Eta euskararen aldeko jaietan? Eta aste kulturalean bertso-saio bat antolatu dutenean nori esaten diote? BERTSO-ESKOLARI. Bertso-eskola erreferentzia bat da.

Ikusi duzu bideoa? Web orrian duzu: <http://www.arababertsozale.org>. Bertan duzu, era berean, 10+1 bertso-saio horien data eta lekua ere.

## Eta... Aurten ere udalekuak datoz!

ABE transmisioa

Aurtengoan ere **bi bertso-udaleku** antolatu ditu uda honetarako Arabako Bertsozale Elkarateak. Aiarako haurrek, ekainaren 24tik 28ra Lekeitioko bazterrez gozatzeko aukera izango dute. Eta uztailaren 1etik 7ra Barriaz gozatu dute Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako 40 haurrek. Dagoeneko itxia dago izen emate epea eta plaza denak bete dira. Bertso-begiraleak hasiak dira Estibalziko ama birjinari errezoka ea eguzki izpiren batek hondartza eta igerileku giroa berotzen duen. Bestela, iaz Barrian bezala (begiratu argazkiari!!!), etxe barruan sartu eta gazteluak eraikitzen hasi beharko dute... Haurrak gustura, eta begiraleak... Ejem... Horiek ere gustura, noski!!





# Topaketak, udaberrian, bata bestearen atzetik!

ABE transmisioa



Mendialdeko bertso festa, maiatzaren 23an, Kanpezun

Ikasturte honetan, urritik maiatzera, 2200 ikaslek landu dute bertsolaritza eskola ordutan. Gelan egindako lanak jendaurrera ateratzeko aukera izan dute ikasturte amaieran. Ikasturtean zehar egindako lanaren ardatzetako bat izan dira jendaurreko emanaldiak, ikastetxe guztietan egin dituzte eskola mailan edo beste ikastetxeren batekin. Hala ere, maiatzaren amaieran eta ekainaren hasieran egin diren herri edo eskualde mailako ikastetxeen arteko topaketek amaierako ginda paregabea eman diote ikasturte osoan zehar egindako lan paregabeari.

**Zuia Koadrilako** ikastetxeen arteko topaketa maiatzaren 16ean izan zen eta bertan Izarra, Aramaio, Murgia eta Legutioko ikastetxeek hartu zuten parte. **Mendialdeko** ikastetxeak izan ziren hurrengoak, maiatzaren 23an bertso festa mundiala eskaini zuten lehen hezkuntzako 5. mailatik bigarren hezkuntzako 4. mailara bitarteko 90 ikaslek. Kanpezuko kultur etxean bildu ziren bertsolaritza landu duten haur eta gazte guztiak.

Erreleboa **Aiaraldeak** hartu zuen Amurrioko Antzokian maiatzaren 29an egin zen Amurrioko ikastetxeen topaketarekin. Egun berean **Lautadako** ikastetxeen topaketa izan zen Aguraingo Harresi aretoan. Maiatzaren 31an **Laudioko** ikastetxeen txanda izan zen eta azken topaketa, **Añana** eskualdeko ikastetxeen artekoa izan zen, Ekainaren 4ean Langraitzeko kultur etxean. Ipuinak bertsotan, asmakizunak, antzerkiak, bertso-hop emanaldiak, umorezko koplak... denetarik izan dugu bertan, baita bat-bateko saioak ere. Hurrengo urtean gehiago eta hobeto.

Aguraingo Harresi aretoa, maiatzaren 29an



